

ZENTSUAK ETA BIZTANLERIAREN ESTADISTIKAK: Euskal Herriko datuak homologatzea

Zuberoan, Nafarroa Beherean eta Lapurdin etxebizitza nagusien %22-%40 alokatzen dituzte, eta gainerakoetan, %7-%8

Lapurdi da etxebizitza gehien alokatuta dituen herrialdea: 1999an, %39,9ko portzentajea zuen. Gehien hurbiltzen zaizkionak Nafarroa Beherea eta Zuberoa dira, %23,5 eta %22,3ko portzentajea baitute hurrenez hurren. Gainontzeko herrialdeak urrun daude horietatik: Gipuzkoak %8,1eko portzentajea zeukan 2001. urtean, Nafarroa Garaiak %7,7koa, Bizkaiak %6,9koa eta Arabak %6,7koa.

(Ikusi 1. taula eta 2. grafikoa)

Jabetzan dauden etxebizitzetarako erreparatzen badiegu, berriz, portzentajeak eta hurrenkera irauli egiten dira. Bizkaiak dauka jabetza portzentajerik handiena, %89,5koa, Arabak %89,2koa, Gipuzkoak %88,2koa eta Nafarroa Garaiak %87,6koa. Aldiz, Nafarroa Beherea (%68,2) eta Zuberoa (%70,7) beste herrialdeetatik urrun daude, eta are urrunago Lapurdi (%54,8).

Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroa Garaiko eskualdeetan alokatuta dauden etxebizitzetarako portzentajeak ez du %10a gainditzen. Baiona-Angelu-Biarritz eskualdean, ordea, %49ra iristen da.

Oro har, eskualde bakoitza bere herrialdeko portzentajeen inguruan dabil. Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroa Garaiko alokairuaren portzentajeek eskualde bakar batean ere ez dute gainditzen %10a. Gainera, kasu batzuetan, nabarmen jaisten da portzentajea. Deigarria da hori, adibidez, Arabako zenbait eskualdetan: Trebiñun (%1,5), Arabako Errioxan (%3,3) eta Arabako Mendialdean (%5,0); Nafarroa Garaian, Estellerrian (%4,5) eta Pirinioaldean (%4,8); eta Gipuzkoan, Debagoienan (%4,8).

Aitzitik, Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako eskualdeetan alokairuan dauden etxebizitzetarako portzentajeak askoz handiagoak dira. Zenbait eskualdetan, gainera, portzentajeak nabarmen igotzen dira: Lapurdin, esate baterako, Baiona-Angelu-Biarritz eskualdearen datua da muturrekoena (%49,0), baina Lapurdi Itsasegiak (%33,5) eta Lapurdi Garaiak ere (%31,0) portzentaje handiak dituzte. Zuberoan, Pettarrak du ehuneko handiena (%29,0), eta Nafarroa Beherean, Amikuzek (%28,1) eta Garazik (%26,0). Badira, ordea, Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan Euskal Herriko batez besteko portzentajera (%10,6) gerturatzen direnak ere: Lapurdi Beherea (%14,0), Oztibarre Nafarroa Beherean (%13,3) eta Arbaila Zuberoan (%12,3).

(Ikusi 3. mapa)

Udalerrietan ere beren herrialdeko egoera agertzen da oro har: Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan daude alokatutako etxebizitzetarako portzentaje handienak dituzten udalerririk; eta beste herrialdeetakoak gero: Gipuzkoakoak, Nafarroa Garaikoak, Bizkaikoak eta Arabakoak. Hala ere, herrialde guztietan aurki daitezke salbuespenak. Datuak herrialdeka bakarrik aztertuz gero, ezin da antzeman euskal udalerrietan ikus daitekeen aniztasuna. Kasu bereziak dira Ubide Bizkaian (%25,8) eta, bereziki, Orreaga Nafarroa Garaian (%88,9) eta Olaberria Gipuzkoan (%56,7); udalerririk horietan, alokatuta dauden etxebizitzetarako batez besteko portzentajea euren herrialdekoa baino askoz handiagoa da. Portzentaje handia duten herrialdeetan ere badira salbuespenak eta kasu bereziak: Lapurdin, adibidez, udalerririk mordoxka bat dira Euskal Herriko batez bestekotik gertu daudenak (%10,6): Lehuntze (%10,5), Milafranga (%11,3) eta Mugerre (%11,9). Nafarroa Beherean eta Zuberoan, berriz, udalerririk ugari

Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroa Garaiko alokairuaren portzentajeek eskualde bakar batean ere ez dute gainditzen %10a. Aitzitik, Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan alokairuan dauden etxebizitzetarako portzentajeak askoz handiagoak dira

Udalerrietan herrialdeko joerak nagusitzen dira, baina salbuespen ugari daude

jaisten dira portzentaje horretatik; Hozta (%0) eta Urdatx / Santa-Grazi (%4,4), adibidez.

Hiriburuek, aldiz, beren herrialdearen egoera berbera azaltzen dute, nahiz eta kasu guztietan etxebizitza alokatuen proportzioa euren herrialdekoa baino handiagoa izan. Baionan (%65,1), Maule-Lexarren (%40,9) eta Donibane Garazin (%40,5) alokatzen da etxebizitza gehien batez beste. Urrun daude beste guztiak: Donostia (%11,6), Iruñea (%10,7), Bilbo (%9,6) eta Gasteiz (%7,1).

(Ikusi 4. mapa eta 5. taula)

Alokairuak behera egin du Euskal Herrian oro har, baina joera alderantzikoa da Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan.

Euskal Herrian behera egin du alokairuaren portzentajeak azken hamar urteetan. 1991. urtean, 878.879 etxebizitzatitik 111.407 zeuden alokairuan, %12,7 alegia. 2001. urtean, berriz, 1.041.654 etxebizitzatitik 110.001 zeuden alokairuan; hau da, %10,6. Horrela, etxebizitza kopurua dezente igo den arren (162.775 etxebizitza gehiago), alokairuan dauden etxeen kopuruak behera egin du.

Herrialdeka aztertuta, ordea, joera kontrajarriak aurki daitezke. Alokairuaren portzentajeak behera egin du Araban (0,9 puntu jaitsi da), Nafarroa Garaian (1,8), Bizkaian (2,4) eta Gipuzkoan (3,9). Egoera bestelakoa da gainontzeko herrialdeetan; hots, Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan. Alokairuan zeuden etxebizitzen portzentaje handiena izateaz gainera, portzentaje horrek gora egin du herrialde horietan: Nafarroa Beherean 1,5 puntu igo da, Lapurdin 1,3 eta Zuberoan 1,0.

(Ikusi 6. taula)

Gai honetan, beraz, argia da Espainiako Estatuan eta Frantziakoan dauden euskal lurraldeen arteko ezberdintasuna: batzuetan besteetan baino askoz ere pisu gutxiago du alokairuak.

Europako Batasunarekin alderatuta ere, Arabako, Bizkaiko, Nafarroa Garaiko eta Gipuzkoako alokairu portzentajeak oso urruti daude Europako Batasuneko batez bestekotik (%39); Nafarroa Beherekoa, Zuberoakoa gertuago daude eta, batez ere, Lapurdikoa.

(Ikusi 7. taula)

Ezberdintasun horiek lotura zuzena dute batzuetan eta besteetan egin duten etxebizitza politikekin. Gainera, azken urteetan alde hori murriztu ordez areagotu egin dela atzematen da datuetan. Joerak bere horretan segitzen badu, beraz, herrialdeen arteko aldea orain den baino zabalagoa izango da etorkizunean ere.

Euskal Herrian, alokatutako etxebizitzen portzentajea beherantz doa oro har, baina joera alderantzikoa da Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan. Horietan gora egin du alokatutako etxebizitzen portzentajeak

Gai honetan argia da Espainiako Estatuan eta Frantziakoan dauden euskal lurraldeen arteko ezberdintasuna; alokairu portzentaje handiak, Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan, eta apalagoak gainerakoetan. Ezberdintasun horiek lotura zuzena dute batzuetan eta besteetan egin duten etxebizitza politikekin

Taula eta grafikoak


1. Etxebizitza nagusiak, edukitzeko moduaren arabera, herrialdeka. Euskal Herria, 2001 (%)

	Etxebizitza nagusiak	Jabetzan	Alokairuan	Utzia edo Beste	Etxebizitza nagusiak	Jabetzan	Alokairuan	Utzia edo beste
	Kop.	Kop.	Kop.	Kop.	%	%	%	%
Lapurdi	94.611	51.854	37.789	4.968	100,0	54,8	39,9	5,3
Nafarroa Beherea	9.998	6.820	2.349	829	100,0	68,2	23,5	8,3
Zuberoa	6.025	4.258	1.342	425	100,0	70,7	22,3	7,1
Gipuzkoa	242.706	214.014	19.548	9.144	100,0	88,2	8,1	3,8
Nafarroa Garaia	188.730	165.239	14.618	8.873	100,0	87,6	7,7	4,7
Bizkaia	397.354	355.471	27.487	14.396	100,0	89,5	6,9	3,6
Araba	102.230	91.215	6.868	4.147	100,0	89,2	6,7	4,1
Euskal Herria	1.041.654	888.871	110.001	42.782	100,0	85,3	10,6	4,1

Iturria: *Euskal Herriko Datu Talaia*. Etxebizitza zentsuak (INE, INSEE).

* Oharra: Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako datuak 1999koak dira.

2. Etxebizitza nagusiak, edukitzeko moduaren arabera, herrialdeka. Euskal Herria, 2001 (%)




Iturria: *Euskal Herriko Datu Talaia*.

Etxebizitza zentsuak (INE, INSEE).


* Oharra: Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako datuak 1999koak dira.

3. Alokairuan dauden etxebizitza nagusiak, eskualdeka. Euskal Herria, 2001 (%)



Iturria: *Euskal Herriko Datu Talaia*. Etxebizitza zentsuak (INE, INSEE).
* **Oharra:** Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako datuak 1999koak dira.

4. Alokairuan dauden etxebizitza nagusiak, udalerrrika. Euskal Herria, 2001 (%)



Iturria: *Euskal Herriko Datu Talaia*. Etxebizitza zentsuak (INE, INSEE).
 * **Oharra:** Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako datuak 1999koak dira.

5. Alokairuan dauden etxebizitza nagusiak (udalerrri esanguratsuak). Euskal Herria, 2001 (%)

Hiriburua			Alokairuak pisu gehien		Alokairuak pisu gutxien		25 udalerrri handien artean alokairuak pisu gehien		25 udalerrri handien artean alokairuak pisu gutxien	
Udalerrria		%	Udalerrria	%	Udalerrria	%	Udalerrria	%	Udalerrria	%
EUSKAL HERRIA	Euskal Herria	10,6	Orreaga (NG)	88,9	Arruazu (NG)	0,0	Baiona (L)	65,1	Arrasate (G)	3,3
			Baiona (L)	65,1	Hozta (NB)	0,0	Biarritz/Miarritze (L)	43,5	Galdakao (B)	3,5
			Olaberria (G)	56,7	Kripan (A)	0,0	Angelu (L)	37,2	Portugalete (B)	3,8
			Donapaleu (NB)	45,7	Larragoa (NG)	0,0	Donostia (G)	11,6	Basauri (B)	3,9
			Biarritz/Miarritze (L)	43,5	Larraul (G)	0,0	Iruñea (NG)	10,7	Barakaldo (B)	4,1
Araba	Gasteiz	7,1	Arraia-Maeztu	10,3	Bilar	0,0	Arraia-Maeztu	10,3	Trebiñu	0,9
			Iruña Oka	9,9	Iruraitz-Gauna	0,0	Iruña Oka	9,9	Zigoitia	1,7
			Urkabustaiz	8,5	Kripan	0,0	Urkabustaiz	8,5	Artziniega	2,2
			Leza	8,4	Mañueta	0,0	Amurrio	8,1	Bastida	2,6
			Amurrio	8,1	Barrundia	0,8	Legutiano	8,1	Lapuebla de Labarca	2,9
Bizkaia	Bilbo	9,6	Ubide	25,8	Maruri-Jatabe	1,3	Ondarroa	10,3	Abanto-Zierbena	2,9
			Zeberio	19,8	Meñaka	1,9	Gernika-Lumo	8,2	Galdakao	3,5
			Munitibar-Arbatzegi-Gerrikaitz	18,9	Arrankudiaga	2,0	Balmaseda	8,2	Trapagaran	3,6
			Ereño	18,9	Zierbena	2,6	Sopela	7,8	Portugalete	3,8
			Izurtza	16,3	Sukarrieta	2,7	Lekeitio	7,2	Basauri	3,9
Gipuzkoa	Donostia	11,6	Olaberria	56,7	Altzaga	0,0	Hondarribia	10,6	Aretxabaleta	2,9
			Mutiloa	17,2	Belauntza	0,0	Tolosa	10,2	Arrasate	3,3
			Albiztur	12,4	Hernalde	0,0	Ordizia	9,7	Legazpi	4,2
			Asteasu	10,9	Larraul	0,0	Irun	8,8	Azpeitia	4,3
			Ataun	10,9	Arama	2,0	Zarautz	7,7	Lezo	4,5
Lapurdi	Baiona	65,1	Biarritz/Miarritze	43,5	Lehuntze	10,5	Biarritz/Miarritze	43,5	Lehuntze	10,5
			Donibane Lohizune	41,0	Milafranga	11,3	Donibane Lohizune	41,0	Milafranga	11,3
			Kanbo	41,0	Mugerre	11,9	Kanbo	41,0	Mugerre	11,9
			Lekuine	39,6	Arbona	12,0	Hendaia	38,2	Urketa	14,5
			Hendaia	38,2	Urketa	14,5	Angelu	37,2	Basusarri	15,3
Nafarroa Beherea	Donibane Garazi	40,5	Donapaleu	45,7	Hozta	0,0	Donapaleu	45,7	Aldude	12,2
			Bidaxune	38,9	Jutsi	1,6	Bidaxune	38,9	Irisarri	13,9
			Izpura	38,3	Ibarla	3,7	Izpura	38,3	Orzaizte	16,7
			Bastida	28,7	Behorlegi	5,0	Bastida	28,7	Oragarre	16,8
			Behauze	26,9	Landibarre	5,9	Baigorri	25,9	Ezterenzubi	16,8
Nafarroa Garaia	Iruñea	10,7	Orreaga	88,9	Arruazu	0,0	Azkoi	11,2	Egues	2,7
			Orbara	16,7	Bidaurreta	0,0	Baztan	10,3	Mendabia	2,9
			Untzue	15,4	Espartza Zaraitzu	0,0	Corella	10,2	Aranguren	3,9
			Luzaide	15,2	Itzagaondoa	0,0	Bera	9,1	Zizur Nagusia	4,6
			Zugarramurdi	14,1	Jaitz	0,0	Tafalla	8,3	Lodosa	5,1
Zuberoa	Maule-Lexarre	40,9	Atharratze-Sorholüze	33,5	Urdatx/Santa-Grazi	4,4	Atharratze-Sorholüze	33,5	Urdatx/Santa-Grazi	4,4
			Arüe-Ithorrotze-Olhaibi	33,3	Ürrüstoi-Larrabile	5,9	Arüe-Ithorrotze-Olhaibi	33,3	Urdirarbe	6,4
			Berrogaine-Lahüntze	30,4	Gamere-Zihiga	5,9	Lohitzüne-Oihergi	24,7	Altzai-Altzabeheti-Zunharreta	7,4
			Lohitzüne-Oihergi	24,7	Urdirarbe	6,4	Domintxaine-Berroeta	23,5	Altzürükü	7,5
			Domintxaine-Berroeta	23,5	Altzai-Altzabeheti-Zunharreta	7,4	Sarrikota	22,3	Montori = Berorize	8,5

 Iturria: **Euskal Herriko Datu Taldea**. Etxebizitza zentsuak (INE, INSEE).

* Oharra: Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako datuak 1999koak dira.

6. Etxebizitza nagusiak, edukitzeko moduaren arabera, herrialdeka. Euskal Herria, 1991-2001

	1991	2001	1991	2001
	Kop.	Kop.	%	%
Euskal Herria	878.879	1.041.654	100	100
Jabetzan	730.746	888.871	83,1	85,3
Alokairuan	111.407	110.001	12,7	10,6
Utzia edo Beste	36.726	42.782	4,2	4,1
Araba	82.187	102.230	100,0	100,0
Jabetzan	73.181	91.215	89,0	89,2
Alokairuan	6.241	6.868	7,6	6,7
Utzia edo Beste	2.765	4.147	3,4	4,1
Bizkaia	348.391	397.354	100,0	100,0
Jabetzan	303.566	355.471	87,1	89,5
Alokairuan	32.290	27.487	9,3	6,9
Utzia edo Beste	12.535	14.396	3,6	3,6
Gipuzkoa	199.009	242.706	100,0	100,0
Jabetzan	168.192	214.014	84,5	88,2
Alokairuan	23.898	19.548	12,0	8,1
Utzia edo Beste	6.919	9.144	3,5	3,8
Lapurdi	80.984	94.611	100,0	100,0
Jabetzan	44.772	51.854	55,3	54,8
Alokairuan	31.243	37.789	38,6	39,9
Utzia edo Beste	4.969	4.968	6,1	5,3
Nafarroa Beherea	9.069	9.998	100,0	100,0
Jabetzan	6.349	6.820	70,0	68,2
Alokairuan	1.997	2.349	22,0	23,5
Utzia edo Beste	723	829	8,0	8,3
Nafarroa Garaia	153.532	188.730	100,0	100,0
Jabetzan	130.642	165.239	85,1	87,6
Alokairuan	14.523	14.618	9,5	7,7
Utzia edo Beste	8.367	8.873	5,4	4,7
Zuberoa	5.707	6.025	100,0	100,0
Jabetzan	4.044	4.258	70,9	70,7
Alokairuan	1.215	1.342	21,3	22,3
Utzia edo Beste	448	425	7,9	7,1

Iturria: Euskal Herriko Datu Talaia. Etxebizitza zentsuak (INE, INSEE, EUSTAT)

* **Oharra:** Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako datuak 1990ekoak eta 1999koak dira, eta ez 1991koak eta 2001ekoak.

7. Etxebizitza nagusiak, edukitzeko moduaren arabera. Euskal Herria eta Europako Batasuneko herrialdeak (15), 2001 (%)

	Jabetzan	Alokairuan	Alokairu soziala	Alokairu pribatua
Euskal Herria	85	11		
Espainiako Estatuak	86	14	2	12
Irlanda	80	20	11	9
Italia	78	22	6	16
Grezia	74	26	0	26
Erresuma Batua	69	31	21	10
Portugal	68	32	4	28
Finlandia	67	33	14	19
Luxenburgo	67	33	2	31
Belgika	63	37	7	30
Europako Batasuna (15)	61	39	18	21
Suedia	62	38	22	16
Austria	55	45	23	22
Danimarka	55	45	19	26
Frantziako Estatuak	54	46	17	29
Herbehereak	48	52	35	17
Alemania	38	62	26	36

Iturria: *Euskal Herriko Datu Talaia*. Etxebizitza zentsuak eta etxebizitzaren datuak (INE, INSEE eta Fundación La Caixa).

* **Oharra:** Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako datuak 1999koak dira. Euskal Herriko ehuneko baturak (jabetzarenak eta alokairuenak) ez du ehun ematen, gainerako %4a bestelako ereduari dagokielako. Europako Batasuneko herrialdeetako datuak 1999. urtekoak dira; beraz, ez da biltzen Europako Batasunean 2004. urtean sartu ziren 10 estatuen datuak.

- Prentsa ohar hau egiteko erabili ditugun datu guztiak helbide honetan aurkituko dituzu:

WWW.datutalaia.net

- **Datu Talaia, Gaindegiako Estatistika Sailak**, Espainiako eta Frantziako estatuetako azken zentsuetan (2001 eta 1999ekoak, hurrenez hurren) oinarrituta egin dituen homologazio estatistikoaren emaitza dira datu horiek. Lehen aldiz, Euskal Herri osoko ikuspegia eskaintzen da. Euskal Herriko datuak lortzeko egin ditugun prozeduren berri jakiteko, ikus web orriko "Iturriak eta metodologia oharra" txostena.
- **Jatorrizko datuak:** Biztanleria zentsuak eta Biztanleriaren estatistikak (EUSTAT, INE eta INSEE). Europako estatuetako datuak: EUROSTAT.

**Argibide gehiagorako edo
Prentsa Ohar zaharrak hiru hizkuntzetan kontsultatzeko:**
Euskal Herriko Datu Talaia
www.datutalaia.net